

ENPRESA EDO NEGOZIOAREN AURKEZPENA

“Geoproduct” enpresa gara, eta aplikazio bat garatuko dugu, hainbat supermerkatu eta tokiko dendatako prezioak eta produktuak alderatzeko. Langileko lehen mailako kooperatiba gara, eta gure bulegoa Txurdinaga-Santutxun egongo da, lan egiteko eta bezeroen zalantzak argitzeko soilik, halakorik izanez gero. Aplikazio honen helburua gure bezeroak dendetan dauden berrikuntza edo deskontu guztien berri izatea da. Enpresak lehenengo urteetan emaitza onak izatekotan, gure zerbitzua beste herrialde batzutarra edatuko genuke, baita elikagaiak ez diren beste produktu batzuk konparatzera pasatuko ginateke, hala nola industria elektronikorako (mugikorrak, eramangarriak) edo modaren industriarako (tokiko dendak, marka handiak: Zara, Mango.). Gaur egun, Espainian jarriko dugu arreta, bezero guztiek erabiltzeko aukera izan dezaten, eta hainbat hizkuntzatan egongo da eskuragarri (euskaraz, frantsesez, ingelesez), atzeritarrek beren hizkuntzan erabili nahi badute.



Aplikazio horren funtzioak errazak izango dira, eta, beraz, edozein motatako pertsonak erabil dezake, adina edozein dela ere. Dena den, ez dugu uste 12 urtetik beherakoek gure produktua erabiliko dutenik, izan ere, hauek ez dituzte oraindik erosketak egiten. Publizitateari dagokionez, hainbat hedabideren bidez egingo da, hala nola sare sozialen, egunkarien, irratien bidez, adin guztietako pertsonen gure produktua ezagutarazteko.

Gure proiektua era guztietako pertsonen ekonomikoki laguntzeko gai da, edo aplikazio bakar batean produktuak, prezioak edo deskontuak ikusteko aukera ematen die. Gainera, aplikazio honek denbora aurrezten lagunduko die gure bezero guztiei, bertako dendei eta beste supermerkatu batzuei buruzko informazio guztia bilduta egongo baita. Beraz, gure proiektuen abantailetakoa bat tokiko merkataritza ikusaraztea eta ezagutaraztea da, askotan ez baitira inguruko denda eta bestelako zerbitzuak ezagutzen eta soilik ezagunak diren merkatal guneetara jo ohi izaten dugu. Horregatik, uste dugu gure proiektuak gure bezeroen bizitza errazteaz gain, autonomoei, denda txikiei edo enpresa handiei ematen zaizkien aukera berak ematen ez dizkien merkatan martxan jarri berri diren proiektu txikiei ere lagunduko diela. Gainera, gure proiektua ez dago sektore bakar batera mugatuta, elikagaien industriara adibidez, baizik eta gure herrialdeko familien eta enpresen ongizatea erraztuko duten hainbat sektore edo eremutara ere zabal daiteke.

